



SANFERMINAK 2020

KONTRAZAL LEHIAKETA, HAURREI ZUZENDUA

Lesakako Udalak lehiaketa deitzen du, 2020ko San Frminetako programaren gibelego azala aukeratzeko.

ARAUTEGIA

-Azalak: kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz.

-Neurriak: A4.

Derrigorrez, bertan agertu behar du: **LESAKA 2020ko SANFERMINAK**

-Gaia: Norberak nahi duena, zertarako den kontutan hartuz.

-Lanok jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute.

-Partehartzaileak: Lesakan jaioak edo bertan erroldatuak haurrak, 6 urtetik 12 urte bitartekoak.

-Aurkezpena: lanak sobre batean sartuta aurkeztuko dira udal bulegoetan. Sobre honek eta lanak berak izenburu bat izanen dute, sobrean adieraziko dena. Sobre horren barruan bertze sobre ttiki bat itxita, eta bertan aurkezlearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa idatziko dira. Partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkezten ahal ditu.

-Aurkezteko epea: **Maiatzaren 8a 13:00 orduak arte.**

-Aurkezten diren lan guzietan erakusketa bat egine da Kultura eta Turismo Bulegoan, Beheko Plaza 5, maiatzean (datak aitzinago iragarriko dira).

-Herri bozketak erabakiko du lehiaketa, eta haren erabakia apelaezina izanen da. Horretarako erakusketak irauten duen bitartean, bertan, Lesakan jaioak edo bertan erroldatuak direnak, bozketak egiteko aukera izanen dute.

-Aurkezten diren lanak Sanferminetako programan argitaratu ahal izanen dira.

-Udalaren esku geratuko da saritutako lana. Bertzeak itzuliko dira.

SARIAK

1.a.....**100 euroko bonoa** Lesakako dendetan eskolako materiala erosteko.

Lan saritua programaren gibelego azalean argitaratuko da.

OHARRA: Egungo egoera kontutan hartuz, Udalarentzat segurtasuna izanen da lehentasuna, gainerakoa (bestak barne) bigarren mailan geldituz. Honela, arduraz jokatu dugu eta bestak gibelatzeko aukera hortxe dago. Hala izanda ere, sariak bere horretan mantenduko dira.

Lesakan, 2020ko apirilaren 14an, Alkatea,

